

# Landeia

Aldizkari Sindikala - Revista Sindical  
Apirila · Maiatza 2026 Abril · Mayo | Nº 261 Zenb.

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

## M17 GREBA OROKORRA eta MAIATZAREN LEHENA

Jo Ta Ke SMI hemen erabaki arte!





## Tras el M17, no hay marcha atrás

# SMI 1.500 euros: No pararemos hasta que se decida aquí

El 17 de marzo salieron a la calle más de 125.000 personas en las seis manifestaciones del mediodía y decenas de miles en las 85 manifestaciones celebradas por la tarde. El éxito de la huelga y las movilizaciones masivas demuestran que la sociedad vasca no va a ceder en la reivindicación de los 1.500 euros. "Hoy somos más fuertes que ayer y no vamos a parar hasta conseguir el objetivo": que el SMI se decida aquí. ▶

## > Landeia

La Huelga General del 17M fue una demostración de fuerza de la clase trabajadora vasca. Hace más de un año, se puso en marcha la dinámica por un salario mínimo acorde con la realidad del país, por tres motivos:

- 1) El SMI estatal no alcanza para hacer frente a los precios de la alimentación, de la electricidad, de la vivienda.
- 2) Elevar el salario mínimo es una medida que combate la brecha salarial machista y racista.
- 3) Hay que poner pie en pared ante la devaluación de los salarios, la destrucción del empleo industrial y una patronal que está obteniendo unos beneficios récord.

El salario mínimo propio es una medida necesaria, justa y viable. La patronal y los Gobiernos despreciaron la iniciativa sindical y se pusieron de acuerdo para cerrar las dos vías que habían puesto en marcha, la vía de la negociación colectiva y la vía política. Pues bien: gracias al 17M se han vuelto a abrir ambas vías.

Mediante la huelga, la sociedad vasca ha defendido con firmeza la reivindicación del SMI propio y ELA lo tiene claro: "Hoy estamos más fuertes que ayer, y tanto los partidos políticos como las patronales se han dado cuenta. No pararemos hasta conseguir el objetivo".

El Gobierno Vasco y el Gobierno de Navarra, así como el conjunto de los partidos políticos, deben impulsar la modificación legal necesaria para que ambos Gobiernos adquieran la competencia de regular un SMI superior al estatal. Hay que ampliar la capacidad de decidir de las instituciones de Hego Euskal Herria sobre las condiciones de vida y de trabajo de la clase trabajadora. Si bien el Parlamento de Navarra rechazó por tres votos dicha propuesta (al votar en contra el PSN y Izquierda-Ezkerra, junto con PP-

## Grebaren bitartez, euskal gizarteak tinko defendatu du LGS propioaren aldarria



## Confebask eta CEN patronalek ezin dute ezikusiarena egin: legez, negoziatu behar dute, kasu honetan lan arlorako 1.500 euroko LGSa

Vox), los sindicatos van a insistir en todos los ámbitos para que prospere su iniciativa. A corto plazo prevén la presentación de una proposición de ley en el Congreso español por parte de varios partidos políticos que posibilitaron la investidura del Gobierno actual.

Por otro lado, las patronales Confebask y CEN no pueden mirar para otro lado: tienen la obligación legal de negociar, en este caso, un SMI de 1.500 euros para el ámbito laboral. La cuestión también les incumbe, por mucho que traten de echar balones fuera.



## Éxito de la Huelga General

El éxito de la Huelga General se puede medir por el nivel de activación sindical y social que ha logrado: la adhesión de 1.700 comités de empresa; cientos de asambleas en los centros de trabajo; 136 comités de huelga en pueblos y barrios; más de 125.000 personas en las seis manifestaciones del mediodía y decenas de miles en las 85 manifestaciones celebradas por la tarde. El seguimiento registrado desde primera hora de la mañana en la industria fue muy amplio y después se fueron sumando a la huelga la educación, los servicios públicos y otros sectores.

Además, hay que destacar el impacto mediático, social y político. El 17M no fue un día normal. La voz de la clase trabajadora vasca se escuchó en los centros de trabajo y en la calle. El salario mínimo propio, y en general el

## M17 ez zen egun arrunta izan. Euskal langileen hitza kalean zein lantokietan ozen entzun zen

reparto de la riqueza, se ha situado en el centro del debate político y social.

El secretario general de ELA, Mitxel Lakuntza, realizó una valoración positiva de la huelga general, subrayando que la reivindicación de un salario mínimo propio no es únicamente económica, sino que también tiene un claro componente político. "Uno de los principales logros de la movilización ha sido situar esta demanda en el centro del debate público y aumentar la presión sobre partidos políticos y patronal".

En concreto, respecto a Confebask, Lakuntza critica que, por el

momento, "ni siquiera dé la cara", una actitud que considera injustificable. Además, recuerda que esta medida no solo mejoraría las condiciones de los sectores más vulnerables, sino que también impulsaría una subida generalizada de los salarios.

Por otro lado, Lakuntza señala que en Madrid sigue abierta la vía institucional. Tal y como explica, es necesario modificar el artículo 27 del Estatuto de los Trabajadores para permitir que Euskadi y Navarra puedan fijar su propio salario mínimo.

Como en las mejores películas, esto no se ha acabado, todavía hay más. Continuará... ■





## GREBA, POLITIZATZEKO AUKERA

ELarentzat erronka da greba tresna politizatzaile eta produkzioa geldiarazteko ariketa izatea. Hori esanik, Euskal Herrian Europako beste edozein lurraldetan baino gehiago gelditzen da produkzioa. Martxoaren 17an Iparraldeko ELAko militanteak Hegoaldera etorri ziren eguna bizitzera, ahozabalik zeuden ikusten zutenarekin. Lurraldeetan eta sektoreen arabera egoera ez da berdina (langileon indar-harremana ere ez), eta egungo greba eredurekin ez dago konformatzerik, baina egindakoa bereziki baloratu behar da.

Eraldaketa sozialak, edo greba moduko tresna mobilizatzaileak, ez dira argazki finkoak, eraiki eta deseraiki egiten dira, horregatik prozesuan irakurri beharra dago. Azken greba orokorrekin alderatuta inflexio puntu bat ezarri dugu. Greba honetan (gutxieneko soldata hobetzeaz gain) gure buruari erronka bat jarri diogu, grebaren jarraipena hobetzea eta, bereziki kolektiboki erabakitzen diren esparruak handitzea (azken urteetan murrizte prozesuan zeudenak). Asanblada bidez eta kolektiboki bozkaturata greba egitea erabaki duten lantokiak bikoiztu egin ditugu 2020ko greba orokorrarekin konparatuta, eta bozketa egin den ia lantoki guztietan langileek grebaren aldeko erabakia hartu dute. Ez da nahikoa, baina hurrengo greba baterako are lantoki gehiagotan ariketa hau egiteko baldintzak sortu ditugu. Egungo egoera es da nahikoa, noski. Baina guk egindakoari balioa ematen diogu. Asanbladak horrela eginda langile klase kontzientzia sortzen dugu, grebaren arrazoiak kolektiboki eztabaidatzea langileria politizatzeako aukera bilakatzen da eta greba egin nahi duten langileek babes kolektiboa lortzen dute.





## “Borroka hau irabaz dezakegu”

Martxoaren 17ko greba orokorrean ELAK Euskal Herrirako 1.500 euroko gutxieneko soldata propioa ezartzea aldarrikatu zuen. Patronalen (Confebask eta CEN) eta EAJ, PSE eta PSNren jarrera zentralista eta antidemokratikoaren aurrean, aberastasunaren banaketa eta justizia soziala ekarri zituen eztabaidaren erdigunera.

Bilbon egin zen manifestazioaren ondoren, ELAko idazkari nagusi Mitxel Lakuntzak hartu zuen hitza grebalari guztiei begira. Kapitalismoaren “aurpegirik gordinena” pairatzen duten kolektiboek ahotsa eman

zaiela nabarmendu zuen: gazteak, migratzaileak eta gutxieneko soldatarekin bitzita duina bermatu ezin dutenak. 1.500 euroko gutxieneko soldataren aldarria “justizia feminista egiteko eta arrakala

guztiek in bukatzeko” borroka ere badela gogorarazi zuen.

### Oztopoak

Saiakera ugari egin ditu ELAK bide instituzionaletik, baina Eusko Legebiltzarrean eta Nafarroako Parlamentuan oztopatu egin dute Herri Ekimen Legegilea. EAJk, PSEk eta PSNk jarrera antidemokratiko eta zentralista babestu dute, eta Confebask patronalak ere uko egin dio negoziazioari behin eta berri. “Argudiatzen dute gutxieneko soldata igotzeak soldaten igoera orokorra ekarriko lukeela; hain zuzen ere, hori bera da ELAren helburua. Azken 15 urteetan enpresen irabaziak bikoiztu dira, eta langileen soldatek apenas egin dute gora” salatu zuen Lakuntzak.

### Ultraeskuinari bidea itxi

125.000 pertsona atera zituen kalera grebak, elkertasuna, berdintasuna

eta justizia soziala aldarrikatzeko, ultraeskuina eta faxismoa hedatzen ari den testuinguruan. Horregatik, Lakuntzak argi esan zuen: "Faxismoari bidea ixten ari gara, langile klasea antolatzen denean ultraeskuinak ez duelako tokirik".

### **Elkartasuna eta burujabetza**

Greba hau bi zutabe nagusitan oinarritu izan da: egoera okerrenean daudenekiko elkartasuna eta burujabetza handiagoaren beharra. Lakuntzak azaldu bezala: "Argi gelditu da euskal langileak ez dituela onartzen espainiar estatuak ezarritako lan baldintzarik, eta Euskal Herriko errealitatera egokitutako gutxieneko soldata defendatzen duela. Greba orokorra prekaritatea inposatzen duten Confebask eta CEN patronalen aurkako borroka izan da. Horregatik ezinbestekoa da burujabetza handiagoa, inposaketei eta prekaritateari aurre egiteko".

### **Irabaz dezakegu**

"Konbentzituta gaude borroka hau irabaz daitekeela". Mezu baikorrarekin eman zion amaiera diskurtsoari. "Aukerak zabalik daude. Sindikatuen arteko lankidetzak eta estatu mailako aliantzek bidea ireki dute eztabaida Madrilgo Kongresura eramateko. Alderdi politiko batzuek jada konpromisoa hartu dute ekimen parlamentarioa abiatzeko, eta gehiagok bat egitea espero dugu. Greba orokorrak mugarri izan behar du euskal alderdi politikoentzat, ezin baita ulertu etorkizuneko akordioetan gutxieneko soldataren aldarria baztertzea.

Patronalak ere ezin izango dio luzaroan eztabaida honi bizkar eman. Borroka hau geratzeko etorri da, eta okerren dauden langileekiko konpromisoa gero eta sendoagoa izango da. Pauso garrantzitsua eman genuen martxoaren 17an: indartsuago gaude, eta inoiz baino gertuago gutxieneko soldata propioa lortzetik. Horregatik, sinesten dugu laister berriro beteko ditugula kale eta plazak, orduan bai, borroka honen garaipena ospatzeko". ■





# A28

LAN OSASUNAREN ETA  
SEGURTASUNAREN  
NAZIOARTEKO EGUNA

EUSKAL HERRIAN ABSENTISMOA %0 DA



**KRIMINALIZAZIOEN  
AURREAN,**

**PREBENTZIOA  
LEHEN LERRORA!**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA



## MAIATZAREN LEHENA (BILBO)

# Justizia sozialaren alde eta faxismoaren aurka, hemengo LGS lortzea hurrengo pausua da

Bilbon, ELAren 10.000 militanteren aurrean, Lakuntzak berretsi du 1.500 euroko gutxieneko soldata lortzeko konpromisoa, eta Jaurlaritzari zein Confebask patronalari gehiengo sindikalaren borondatea errespetatzeko eskatu die. Nafarroan, berriz, Amaia Muñoaren (idazkari nagusi albokoa) eta Imanol Pascualen (Nafarroako koordinatzailea) hitzaldien oinarrian NATOren desagitearen aldarrikapena egon da. Erorien Monumentuan hasi da manifestazioa, Monumentuaren eraisketa eskatuz.

Bilbon, ELAren 10.000 militanteren aurrean, Lakuntzak berretsi du 1.500 euroko gutxieneko soldata lortzeko konpromisoa, eta Jaurlaritzari zein Confebask patronalari gehiengo sindikalaren borondatea errespetatzeko eskatu die. Nafarroan, berriz,

Amaia Muñoaren (idazkari nagusi albokoa) eta Imanol Pascualen (Nafarroako koordinatzailea) hitzaldien oinarrian NATOren desagitearen aldarrikapena egon da. Erorien Monumentuan hasi da manifestazioa, Monumentuaren eraisketa eskatuz.

ELAk Maiatzaren Lehena ospatu du Bilbon eta Iruñean eginiko manifestazioetan, 'SMI 1.500. Jo ta ke hemen erabaki arte' lelopean. Beste sindikatuekin batera martxoaren 17an ELAk egindako greba orokorraren aldarrikapena da aurtengo Maiatzaren Lehenaren

mezu nagusia, hain zuzen ere, lelo argia eta zuzena.

Maiatzaren Lehena bide honetako mugarrria izan da. ELAren eta milaka militanteen eginbeharra da geroz eta basatiagoa den kapitalismoaren ondorioei aurre egitea: inperialismoa, gerra eta, sakonean, faxismoaren aurka borrokatzea. ELAk uste du demokraziaren eta burujabetza sozialaren defentsa izan behar direla borroka ardatzak. Une honetan, beste aldarri batzuk ahaztu gabe, 1.500 euroko LGSaren aldarrikapenak biltzen ditu borroka guztiak bat egiteko osagaiak.

### Gutxieneko Soldata Propioa

Ildo horretan, argi mintzatu da Mitxel Lakuntza ELAren idazkari nagusia: “Behin eta berriz esan dugu: “Ez dugu etsiko hemengo gutxieneko soldata lortu arte”. Soldata duinak bereziki milaka emakumeren bizi baldintzak hobetzeko balioko luke, justizia sozial eta feministarako bidea izanik. “Ez dugu nahi beste inork gure izenean erabakitzerik; ez dugu nahi inork Madrildik bere prekaritatea inposatzerik; izan ere, gutxieneko soldata hobetzea insolidarioa dela esatea espainolista da”, gaineratu du.

Ildo beretik, Iruñeko manifestazioaren amaierako hitzaldietan, Muñoak eta Pascualek deitoratu egin dute Nafarroako Parlamentuan PSNk eta Contigo Zurekin alderdiak Alderdi Popularrarekin eta Voxekin bat egin izana, Nafarroak LGS propioa izatearen aurka. Chivite presidentea ere interpelatu dute, Nafarroak bere LGS propioa finkatzeko eskumena bere gain har dezan; izan ere, horrek lan merkatuan okerren dauden pertsonen mesede egingo lieke (batez ere migratuei eta emakumei).

### Elkarrizketa soziala

Bilbon, Lakuntzak Eusko Jaurlaritzari eta patronalari kritikak zuzendu dizkio elkarrizketa sozialaren mahaiaren inguruan. Gobernuak gehiengo sindikalari mehatxua bota izana salatu du, eta mahai hori “antidemokratikoa” dela



## ELA considera que, en este momento, un SMI propio de 1.500 euros sería la herramienta más eficaz para defender la democracia y la soberanía nacional

eta “propagandarako tresna” bihurtu dela. Jaurlaritzari eskatu dio Partaidetza instituzionalaren lege-proiektua atzera botatzeko.

Mobilizazio eta greba ugaritan parte hartzen ari diren langileei babesa adierazi diete Bilbon zein Iruñean egindako ekitaldietan, eta enplegua suntsitzen duten ERE eta kaleratzeen aurrean sindikatuaren zeregina lanpostuak defendatzea dela azpimarratu dute. “ELAren xedea ez da enpresak nahi duena bozkatzea, sindikatuak enpleguari azkeneraino

eutsi behar dio”, adierazi du idazkari nagusiak.

Horrekin batera, Lakuntzak nabarmendu du ELA sindikatu antiarrazista dela, eta migranteak kriminalizatzen saiatzen direnen aurrean lantokietan antolakuntza eta borroka direla erantzunik eraginkorrenak.

Eskubide sozialen alde egiteaz gain, euskaraz bizitzeko eta lan egiteko eskubidea ere aldarrikatu dute Maiatzaren Lehenean.

# Tubos Reunidos necesita un plan industrial, no un ERE



Tras meses de conflicto, ELA insiste en que el ERE de Tubos Reunidos debe quedar sin efecto, y además exige garantizar el futuro industrial de las plantas vascas. Además, la incorporación de 41 eventuales tras la denuncia de ELA ante Inspección no ha evitado despidos forzados, lo que supone una actuación denunciabile por parte de la empresa.

## > Landeia

ELA mantiene su postura de que el Expediente de Regulación de Empleo (ERE) en Tubos Reunidos debe quedar sin efecto, reclamando la continuidad de la Acería, el mantenimiento del área de Logística y la ausencia total de despidos forzados. ELA, que recurrirá el ERE, exige un plan de viabilidad industrial real que asegure el futuro de la compañía.

**ELAk euskal instituzioei premiazko eta benetako konpromisoa eskatzen die enpresaren egoera konpontzeko; zuzendaritzak egindako kudeaketaren errua delako**

Tras la denuncia presentada por ELA ante la Inspección de Trabajo de Araba, un total de 44 trabajadores eventuales en situación irregular fueron incorporados a la plantilla, después de que el organismo detectara 46 casos de contratación fraudulenta. Dos de esas personas han optado por no continuar en la empresa. Este avance fue valorado positivamente por el sindicato, aunque aún persisten despidos forzados entre el resto de eventuales y no descarta que existan más casos de fraude, que serán analizados por ELA.

La resolución de la Inspección llega después de dos reuniones clave: la primera, el 24 de febrero, en la que ELA presentó un listado de posibles irregularidades en la contratación; y la segunda, el 25 de marzo, cuando se confirmó la existencia de dichos casos. Como consecuencia, la empresa se vio obligada a revisar su decisión final e integrar a muchas de estas personas en la plantilla.

Por otro lado, ELA cuestiona los últimos resultados económicos presentados por la empresa, correspondientes a 2025. Pese a registrarse una facturación significativamente superior a la de 2024, las pérdidas declaradas son mayores que las inicialmente comunicadas. En un primer análisis, ELA apunta a un posible uso interesado de la ingeniería contable por parte de la dirección, cuya credibilidad pone en duda.

ELA exige a las instituciones vascas una implicación "real e inmediata" para resolver la situación de la empresa, que atribuye exclusivamente a una gestión deficiente de la dirección. ELA recuerda que el origen de la actual deuda se remonta a 2008, vinculada al reparto de 170 millones de euros entre los accionistas. ■



# Xantaia da, ez demokrazia

**Unai Martinez Azarola**  
ELA-Industria eta Eraikuntzako  
idazkari nagusia

**T**ubos Reunidos enpresak zor handia dauka eta haren proiektu industrialak oso etorkizun zaila du. Akziodun nagusiak BBVA eta Bizkaiko hainbat familia oso ezagun dira. Zorraren zati handi bat 2008an sortu zen; orduan akziodunei 170 milioi euroko etekinak banatu zitzaizkien (enpresak sortu ez zituenak). Orduetik aurrera langileek hainbat arazo pairatu dituzte: espedienteak, kaleratzeak eta Trapagako altzairutegiaren itxiera.

2021. urtean SEPIk enpresaren zuzendaritzaren esku jarri zituen 112,8 milioi euro; hark ez dauka diru hori itzultzeko asmorik. Zuzendaritza hau ez da gai izan enpresaren jarduera dibertsifikatzeko, ez dio irtenbiderik eman aldian-aldian errepikatu izan diren arazoei, eta ez du asmatu taxuzko industri-planik egituratzen. Haien errezeta bakarra, behin eta berriz aplikatu nahi dutena, hau da: 301 langile kaleratu, Amurrioko logistika kanporatu eta altzairutegia ixtea. Plan honek, aurrekoak bezala, ez dauka ez hanka, ez bururik; haren mamia da enpresa deskapitalizatzea.

Tubos Reunidosen amarrua: Nola lor dezaket langileek 301 lagun

## Lantalde batek beste lantegiko lankideak kaleratzeko bozkatzeari ez da demokratikoa

kaleratzeko EEE bat ontzat ematea, eta, batez ere, etorkizuneko kaleratzeak erraztea, baita agian behin betiko itxiera ere? Lantegien artean kolpeak oso modu ezberdinean banatuz: 27 kaleratze Trapagan (izan ere, aurre-erretiroa hartzeko prest dagoen jendea eta borondatez atxikiko dena kopuru hori baino askoz ere gehiago da); aldiz, Amurrion 274 langile gera daitezke enplegurik gabe.

Zuzendaritzak horrelaxe zatitu nahi ditu langileak; gauza da lantegi batekoek beste lantegikoak kaleratzea. Benetan tamalgarria.

ELA da lehen sindikatua bi lantegietan, eta bietako langileen interesen alde jokatu du zuzendaritzaren estrategiari aurre eginez. ELAK fokua kokatu du puntu batean: zuzendaritza ez da gauza espedientearen zergatiak azaltzeko. Inork ez du sinesten 301 lankide kaleratuta eta enpresa deskapitalizatuta Tubos Reunidos salbatuko denik. Inork ere ez.

Horrenbestez, ELAren izenean Trapagako langileen ordezkari zirenek (13ko mahaian 2 ziren) EEEa negoziatzean enpresaren posizioarekin bat egin dute. Ulertzen dugu EEE bati aurre egin behar dion edonork enpresaren aldetik jasaten duen xantaia, baina sindikatuaren eginkizuna ezin da izan kaleratzeak onartzea eta bat ere zentzurik ez duten planak bedeinatzea. Batzuek diote Trapagako lantaldea badela nor erabakitzeke, baina kontrakoa esango lukete Amurriokoek Trapagan 274 langile kaleratuko balituzte.

Lantalde batek beste lantegiko lankideak kaleratzeko bozkatzeari ez da demokratikoa. Ez da demokrazia baldintza onez baliatuko direnak lankideen kaleratzearen kontura aurrejubilatzea. Oraingo espedienterako zergatiak ontzat emanez gero enpresari bide ematen zaio etorkizuneko kaleratzeak errazago egiteko (baita behin betiko itxiera egiteko ere).

ELAK lanean jarraituko du Tubos Reunidosen langile guztien interesen alde. Zintzo jokatu eta lanpostuen alde egingo du; ez du onartuko hauek suntsitzerik. Ezinbestekoa da bi lantaldeen arteko koordinazioa enpresaren norabidea zuzentzeko. Azken galdera: Non dira Tubos Reunidosi hainbeste milioi eman dioten erakundeak? Ezer egiten ez badute konplize izango dira. ■



# Victoria en el textil tras años de lucha: el convenio estatal no se aplicará en la CAPV

ELA logra incluir una cláusula inédita con el fin de que primen los convenios autonómicos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa; y no el estatal.

## > ELA-Zerbitzuak

ELA ha logrado que el convenio estatal no se aplique en la CAPV. Esto permite que las trabajadoras sigan rigiéndose por sus convenios provinciales, evitando así la pérdida de derechos ya adquiridos, así como manteniendo las mejoras materiales del convenio propio.

Tras más de tres años de conflicto y más de 20 jornadas de huelgas en los tres territorios lideradas por el sindicato ELA; por primera vez, un acuerdo de ámbito estatal recoge expresamente la exclusión de la Comunidad Autónoma Vasca, garantizando la prevalencia de los convenios provinciales.

## Años de lucha

La consecuencia directa de esta cláusula llega después de años de movilizaciones en el sector. Durante este periodo, ELA —sindicato mayoritario en Araba, Bizkaia y Gipuzkoa— ha liderado la oposición al convenio estatal negociado en Madrid. Como resultado de la



## CLAVES DE UN ACUERDO HISTÓRICO

De este modo, las trabajadoras del comercio textil seguirán rigiéndose por sus convenios colectivos provinciales, tal y como venían reivindicando en las movilizaciones. Esto permitirá mantener las condiciones laborales actuales, consideradas entre las más favorables del estado. Entre otros aspectos, se preservan diferencias salariales significativas. Esto se traduce en mantener las mejoras salariales en Gipuzkoa, por ejemplo, donde el salario anual tendrá una diferencia con el estatal de hasta 6.856€ anuales. El marco estatal habría supuesto la pérdida de poder adquisitivo para las trabajadoras de Gipuzkoa.

Por su parte, en Bizkaia se habría visto afectada la jornada laboral. En caso de haberse aplicado el convenio estatal, ésta se hubiera visto aumentada en un total de 43 horas anuales. Es decir, el personal de sector textil tendría que trabajar un total de 1770 horas anuales y no 1727 horas, como en la actualidad.

Del mismo modo en Araba seguirán existiendo complementos salariales que en el convenio del estado no tienen cabida. Concretamente el convenio colectivo sectorial de Araba, que será de aplicación debido a esta victoria sindical, contempla la prima de objetivos, el plus de responsabilidad y la prima online. Estos últimos complementos no están recogidos en el convenio estatal.

Asimismo, se mantiene la regulación de la jornada laboral establecida de lunes a sábado, garantizando el cierre en domingos y festivos.

presión ejercida mediante huelgas, la patronal ARTE, integrada por grandes empresas del sector, y de la mano de empresas como Zara, Mango o HyM, ha planteado finalmente una cláusula que excluye a la CAPV del ámbito de aplicación del acuerdo estatal.

### Doble logro

ELA subraya que este logro tiene un doble valor. Por un lado, consolida unas condiciones laborales más favorables para las trabajadoras del sector. Por otro, supone un hito en la lucha contra la estatalización de la negociación colectiva. Es la primera vez que un convenio estatal reconoce explícitamente su no aplicación en la CAPV, respetando así los marcos de negociación propios. Madrid quería seguir imponiendo sus condiciones, pero las movilizaciones han demostrado que éstas se pueden frenar. ELA seguirá reivindicando de manera firme —como lo hizo en la exitosa huelga general del pasado 17 de marzo— el derecho a decidir las condiciones laborales aquí.

## Aurreneko aldiz, Estatuko hitzarmen batek aitortzen du EAEn ez duela aplikaziorik izango, tokiko negoziazio esparruak errespetatuz

El sindicato considera que la estrategia de estatalización impulsada por patronales y sindicatos estatales persigue abaratar costes laborales, precarizar las condiciones de trabajo y debilitar la capacidad de organización sindical vasca. Frente a ello, ELA defiende que la movilización y la acción sindical han demostrado ser herramientas eficaces para frenar este proceso.

En este sentido, ELA valora de forma muy positiva la lucha sostenida durante los últimos tres años en el comercio textil, tanto frente al convenio estatal como ante la patronal ARTE. El sindicato enmarca esta victoria en la defensa de la negociación colectiva propia y del principio de uno de los lemas de

la última huelga general 'Hemen lan egin, hemen erabaki' ("Aquí trabajamos, aquí decidimos").

### Victoria de las trabajadoras organizadas

Cabe destacar desde una perspectiva de memoria sindical feminista que este logro adquiere especial relevancia, ya que se trata de un sector precarizado, formado en su mayoría por mujeres. Mujeres que se han organizado para defender los derechos de la clase trabajadora; del mismo modo que, de manera implícita, rompían moldes dentro del sindicalismo clásico, el cual dentro del imaginario colectivo es mayoritariamente masculino e industrializado. ■



**Peio Igeregi**  
ELAko euskara arduraduna

**A**rgiak plazaratutako ikerketak ez du konspirazio teoriarik eraiki: aspaldidanik euskararen normalizazioaren aurkako oldarraldi politiko, sindikal eta judizial baten inguruan zeuden zantzuak izen-abizenekin agerian utzi ditu. Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundietan, Donostiako eta Errenteriako udaletxeetan hizkuntza eskakizunak murrizteko estrategia koordinatu bat eta haren atzean dauden erakunde eta pertsonak azaldu ditu. Helburua ez zen langileen eskubideak defendatzea edo lanpostu bat eskuratzea; euskararen normalizaziorako neurriak indargabetzea baizik.

CCOOK Argiari eta salaketa egin dugunoi "teoria konspiratiboak" eraikitzea egotzi digute. Ez dago inolako teoria konspiratiborik, euskararen eta euskaldunen aurkako kanpaina antolatua baizik. Ikerketak erakutsi duenez, lanpostua lortzeko benetako interesik ez zuten pertsonak animatu zituzten deialdietan izena ematera, ondoren helegiteak aurkezteko. Doako abokatua eskaintzen zitzaien,

prozedura errazten zitzaien, eta helburua ez zen enplegua lortzea, deialdiak atzera botatzea baizik. Hau ez da eskubide bat defendatzea, iruzur prozesal antolatua da.

CCOOKo eta Ezker Anitzako (Espainiako IU) militante talde batek urteotan lan eskubideak eta hizkuntza eskubideak kontrajarri dituzte. Euskararen kasuan bakarrik ezartzen den dikotomia supremazista faltsu bat da, gaztelaniaren ezagutza lanpostu publiko guztietan ezinbestean eskatzen den baldintza dela ezkututzen duena. Izan ere, euskaraz lan egiteko eta euskaraz artatua izateko eskubidea ere langileen eta herritarren eskubidea da. Euskaraz lan egiteko eskubidea ezabatzea ez da langileak defendatzea; gaztelaniari lehendik duen lehentasuna betikotzea eta euskaldunak bigarren mailako herritar bihurtzea baizik.

Oldarraldiaren bultzatzaile diren CCOOK eta UGTk Madrilen behin-behineko langileen lanpostuak arriskuan jartzen dituen akordioa sinatu zuten. Eta Euskal Herrian behin-behineko langile publikoak euren lanpostuetan kontsolidatu eta administrazioa modu malgu eta progresiboan euskalduntzeko proposamenik ez dute babestu.

# Euskararen aurkako kanpaina antolatua da

Langileen kontsolidazioa bermatzen duten proposamenak dira eta, era berean, hizkuntza eskakizunak betetzeko trantsizio erregimenak planteatzen dituztenak, euskara ikasteko benetako baldintzak sortu eta erretirotik gertu daudenentzat salbuespenak aurreikusten dituztenak. Nahiago izan dute Madrilen akordio hori sinatu eta, aldi berean, euskararen normalizazioaren aurkako gurutzada elikatu, alegia, gaztelania hutsez lan egitea betikotu.

Benetako arazoa ez baita behin-behinekotasuna, ezta lanpostu publikoetan sartzeko baldintzen gogortasuna ere. Arazoa euskara da. Administrazio publikoetan sartzeko baldintza ugari eskatzen dira: titulazioak, oposizioak, gaitasun teknikoak, esperientzia edo gaztelania jakitea. Inork ez du esaten medikuntza ikasi gabe mediku plaza batera aurkezterik ez izatea diskriminazioa denik. Ezta gaztelania jakitea eskatzea baztertzaila denik ere. Euskararena da kendu nahi duten baldintza bakarra. Hizkuntza eskubidea ez baita soilik norberak, bere kabuz, hitz egiteko aukera; entzuten duenak ulertzeko gaitasuna izatea ere beharrezkoa da. Bestela, ez dago ez hizkuntzarik ez komunikaziorik.

## ERREDAKZIO TALDEA

**Zuzendaria:** Iván Giménez.

**Koordinatzailea:** Gorka Quevedo.

**Idazlariak:** Nagore Uriarte, Leire Regadas, Ane Cerrato, Ane Bilbao, Xebax Christy, Miren Rubio, Davide Cabaleiro, Lander Zabaleta.

**Argitarazle:** ELA, Euskal Sindikatua. Barrainkua 13, Bilbao. 944 03 77 00

**www.ela.eus · landeia@ela.eus**

Testuinguru horretan ulertu behar da Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzea helburu duen 19/2024 Dekretua. Dekretuak ezartzen dituen irizpideak euskararen normalizaziorako askotan eskasak badira ere, bere helburua gutxieneko erreferentzia bat ezartzea da: administrazio batek herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko gutxienez zenbat lanpostutan ezarri behar duen hizkuntza eskakizuna adierazten duen tresna, alegia.

Hala ere, euskararen aurkako oldarraldia bultzatzen ari diren alderdi, eragile eta sindikatuek Espainiako Konstituzioaren interpretaziorik murriztaileenean bilatzen dute babes, eta epaitegi espainolen epai eta epaile supremazista, espainolista eta euskarafoboaren interpretazioetan oinarritzen dira euskaraz gutxieneko ezagutza eta erabilera bermatzeko

sortutako araudia euskararen zabalkundea eta normalizazioa oztopatzeko tresna bihurtzeko. Normalizaziorako tresna bat muga juridiko gisa aurkezten dute, administrazioak euskararen alde neurri eraginkorrak har ez ditzan. Horixe da benetako operazioa: euskararen normalizazioa geldiaraztea.

Ez Errenteriako kasuan, ez Donostiakoan, ezta foru aldundietako kasuetan ere ez da langileen defentsarik egon; euskararen eta euskaldunen aurkako sabotaje antolatua baizik. Eta sabotaje horren bultzatzaileek teoria konspiratibo baten biktima papera hartzea hipokresia hutsa da.

Euskalzaleoi dagokigu eraso horiei erantzutea eta berriro gerta ez daitezen neurriak hartzea. Instituzioek, sindikatuek, alderdi

politikoek, gizarte eragileek eta euskalgintzak erasoaldiaren tamainako erantzuna eman behar dugu: lege berme sendoagoak sortuz, erantzun instituzionalak emanez eta mobilizazio soziala sustatuz.

Euskaraz bizitzeko eskubidea herritar eta langile guztion oinarritzko eskubide demokratikoa da. Eta hori bermatzeko neurri ausartak behar dira: euskararen ezagutza unibertsalizatzeko politikak, erabilerarako baldintza materialak eta administrazio publikoetan bi hizkuntza ofizialak ezagutzea benetako abiapuntu bihurtzea, lanpostuak bermatuz eta administrazioa progresiboki eta malgutasunez euskaldunduz. Bestela, askatasunaz hitz egitea iruzurra da. Hizkuntza bakarra dakienak hizkuntza hori inposatzen du beti. Bi hizkuntzak dakizkien administrazio batek bakarrik bermatu dezake herritarren hautua.

## MANIFESTAZIOA

MAIATZAK 9

17:30ean

Jesusen Bihotza

BILBO

**EUSKARAZ**  
bizitzeko  
eta lan egiteko  
eskubidearen  
alde

# Congelados de Navarra, sindicalismo desde abajo

ELA rompe con el convenio estatal y logra subidas entre el 21% y el 36% en unas plantillas con mayoría de migrantes (casi 1.000 personas en Arguedas y Fustiñana)

## > Landeia

Las casi 1.000 personas empleadas en Arguedas y Fustiñana contarán con un convenio propio que reduce 28 horas la jornada anual, una prima de 1.200 euros, mejoras en pluses, e incrementos del IPC+1,5 para los próximos años. Se trata del primer convenio propio de empresa en Congelados de Navarra, una de las industrias agroalimentarias más importantes de la Ribera. ELA rompe así con la imposición de condiciones laborales que UGT y CCOO fijan desde Madrid, logrando subidas salariales entre un 21% y un 36% por encima de las tablas del convenio estatal. Congeladas de Navarra posee dos plantas, una en Arguedas (8 representantes de ELA y 5 de UGT) y otra en Fustiñana (10 ELA, 3 UGT, 4 Independientes) que suman una plantilla de casi 1.000 personas.

Según explican las delegadas Viviana Vanessa Rodríguez Justiniano (Fustiñana) y Maricela Suárez Henao (Arguedas), la mejora más significativa es el incremento sobre las tablas salariales en las categorías más bajas, hasta ahora marcadas desde Madrid por UGT y CCOO. Estos aumentos van del 21% para los auxiliares, hasta el 36% de otras categorías, pasando por el 28% para los especialistas,

Hobekuntzarik nabarmena soldaten taulen igoera da, batez ere kategoría baxuenetan (orain arte, Madriletik UGTk eta CCOOk inposatzen zuten). Igoerak: laguntzaileentzako %21a, espezialistentzako %28a, 2.mailako ofizialentzat %30a eta beste kasuetan %36a

y el 30% para oficial de 2ª. Estos salarios se actualizarán por encima del IPC (en 2027, IPC+1,5%; y en 2028, IPC+1,5%). Además, el acuerdo aumenta el precio de la hora nocturna, la hora extra y que se reconozcan unos pluses a determinados puestos que están expuestos a bajas temperaturas.

El nuevo convenio de Congelados de Navarra reducirá 28 horas la jornada laboral a lo largo de 3 años (12 en 2026, 8 en 2027 y otras 8 en 2028), lo que suponen 3 días y medio menos de trabajo. Toda la plantilla se va a beneficiar de mejoras en las licencias, permisos especiales, y una prima de 1.200 euros brutos a la firma del convenio. Además, ELA ha logrado una prima de fidelidad de 400 euros que empezará a pagarse el 1 de enero de 2027 a las personas con más de 4 años en la empresa. El convenio goza de ultraactividad (se mantiene en vigor hasta que se firme otro que lo sustituya), y de una cláusula de inaplicación que lo blindo ante la reforma laboral no derogada.

Hasta ahora, en estas dos plantas se aplicaba el convenio de Conservas Vegetales estatal, que impone unas condiciones muy precarias, y que año tras año es impuesto por UGT y CCOO en Madrid, impidiendo la negociación de un convenio autonómico en Navarra.

## El 80%, personas migrantes

La negociación en Congelados de Navarra arrancó después de que un grupo de personas, en su mayoría migrantes, decidieron organizarse de la mano de ELA y convocar elecciones sindicales en unas plantas donde no existía representación sindical. "No sin dificultades, consiguieron el apoyo de la mayoría de la plantilla, que hoy ve recompensada su valentía y apuesta por un sindicalismo diferente y reivindicativo que ha llevado a conseguir este primer convenio", destaca Iñigo Campo, responsable de ELA-Erribera.

Maricela Suárez, presidenta del comité de la planta de Arguedas, recalca que "la plantilla está contenta con el respaldo del sindicato. Cada día estamos más empoderadas. Este es el inicio de todas las mejoras que van a venir. Las personas no deben tener miedo de acercarse a un sindicato".

Jenny Ibet Chambi Chiri, Lucca Sabido Soto y Tito Torrico Fernández son también representantes de ELA en la planta de Fustiñana, y junto a sus compañeras, agradecen el papel del antiguo responsable de Industria en la Ribera, Ubaldo Sola, quien les contactó y les informó de las posibilidades de defender sus derechos laborales mediante la acción sindical y la configuración de un comité en sus respectivas plantas. "Hubo presiones de la empresa porque llevaba 25 años sin comité, pero tuvimos apoyo del sindicato, que nos ayudó a crecer y a salir adelante", apuntan.

"Nos afiliamos y nos indicó que no podíamos confeccionar una lista como la que habíamos elaborado, sin protegernos. Cuando empezamos a movilizarnos, sentíamos miedo, principalmente porque siempre predominaba entre la plantilla el comentario de las consecuencias negativas por parte de la empresa que podía aplicar al trabajador o trabajadora que se le ocurriera impulsar unas elecciones sindicales para constituir un comité", recuerdan.

**"Mobilizatzen hasi ginenean, beldur ginen, batez ere langileen artean beti nagusitzen zelako enpresaren errepresalien mehatxua; hauteskunde sindikalak antolatzea oso arriskutsua izan zitekeen guretzat"**



**Congelados de Navarraren kasuak erakutsi du benetako sindikalismoa behetik abiatzen dela; aldi berean, ez du sabairik**

## Todo el futuro por delante

Iñigo Campo subraya que "hay que seguir apostando por la organización, y acercar la negociación a los centros de trabajo, así como negociar en Navarra, tanto las condiciones laborales como el SMI".

En un caso como el de Congelados de Navarra, se demuestra que el sindicalismo que funciona es el que arranca desde abajo porque, al mismo tiempo, no tiene techo. El camino se hace andando, y en estas empresas de la Ribera la militancia de ELA ya ha avanzado un trecho. Pero solo es el principio. ■



# Gipuzkoako erresidentziak: prekaritatearen aurka emakumeak tinko

Hilabete luzeetako mobilizazioen ondoren, borrokak lehen ondorioak utzi ditu: erabat blokeatuta egon den negoziazioa berriz martxan jartzea lortu dute langileek. ELAk sektorea duintzeko proposamena aurkeztu du, eta gogorarazi du borroka ez dela soilik lan baldintzen ingurukoa, zaintza eredu osoarena baizik.

## > ELA-Gizalan

Gipuzkoako erresidentzia eta eguneko zentrozen hitzarmen berrirako negoziazioa iazko urtarrilean hasi zen, eta ordutik ari da ELA prekaritatea gainditzeko lanetan; hamaika mobilizazio eta greba sektorialez gain, zortzi erresidentzietan aurrera jarraitzen du greba mugagabeak, dagoeneko 150 egunen langa gaindituta. Sektorea osatzen duten 5.000 langileen gehienak emakumeak dira, eta ia erdiak borondatezkoak ez diren lanaldi partzialekin ari dira lanean.

Egoera horrek zuzenean eragiten du bai langileen bizi baldintzetan, bai egoiliarrei eskaintzen zaien arretan: ratioak okertu, lan kargak handitu eta langileen rotazioa areagotu egiten da. Horri gehitu behar zaio soldata arrakala: urtean 10.000 eurotik gorakoa da sektore publikoko langileekin alderatuta.

Are larriagoa da zenbait zentrotan, bereziki KABIaren menpekoetan, non partzialtasuna %55era iristen den. Datu horrek erakusten du prekaritatea ez dela soilik enpresa pribatuek kudeatzen dituzten egoitzetako arazoa, baizik eta administrazioaren erantzukizun zuzena ere badela. Gainera, zaintza lanen feminizazioak areagotu egiten du egoera hau, eta genero arrakala egiturazko arazo bihurtzen da sektorean.

## **Kontratu finkoak eta lanaldi osoak ardatz**

Hilabete luzez patronalek – Matia, Adegia eta Lares – ez dute proposamen esanguratsurik aurkeztu, eta horrek negoziazioaren blokeo osoa ekarri du. Egoera horrek luzatu du gatazka, baina aldi berean agerian utzi du grebaren indarra: martxoaren 27ko bileran patronalek proposamen bat aurkeztu zuten lehen aldiz, presioaren ondorioz. Dena den, urrun dago langileen aldarrikapenetatik.

Gauzak horrela, ELAk apirilean bere proposamena aurkeztu zion patronalei eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, sektorea duintzeko



helburu argiarekin. Lanaldi osoko kontratuak bermatzea da lehentasuna, prekaritatearen muinari heltzeko eta egoiliarren arreta nabarmen hobetzeko.

Horrez gain, honakoak jasotzen ditu proposamenak: KPI kontsumo prezioen indizea aintzat hartuta iazko eta aurtengo soldatetan %5eko igoera bultzatzea, 60 urtetik gorakoentzat lanaldia 30 ordura murriztea eta kotizazioa %100ean mantenduz erretiroa hartu arte soldatarik gabeko %25erainoko baimena eskatzeko eskubidea izatea. Era berean, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko neurriak ere jasotzen ditu, langileei horretarako baliabideak eta denbora bermatuz.

### Instituzioen inplikazioa

Ez da soilik lan baldintzen kontua: egungo egoerak lotura zuzena du azken urteetan ezarri den zaintza ereduarekin. Gipuzkoako Foru Aldundiak sektorea pribatizatu izanak lan baldintzen eta zerbitzuaren kalitatearen etengabeko narriadura ekarri du. Enpresek kudeatzen duten arren, baldintzen oinarria instituzioek ezartzen dute, baina ez zaio mugarik jarri prekarizazioari.

Testuinguru horretan, Aldundiaren inplikazio falta salatu du ELAK. Martxora arte ez da bilerarik izan,

## ELA seguirá trabajando para conseguir un acuerdo, pero con una condición: que aborde los problemas estructurales del sector

ezta aurrekontu akordioetan jasotako konpromisoak ez dira bete. Are gehiago, grebaren aurrean, zerbitzu minimoak %90era arte ezarri ditu Eusko Jaurlaritzak. Honek esan nahi du praktikan urte guztian dagoela zerbitzua minimoetan.

Ekimen politikoak sustatzeko beharra ere azpimarratu du. Hainbat alderdiri eskatu die azken hilabeteotan Foru Gobernuak, patronalak eta sindikatuak mahai berean esertzeko bideak errazteko, blokeo egoerari irtenbide politikoa emateko.

Batzar Nagusietako azken osoko bilkuran, EH Bilduko batzarkideek aurkeztuta Gipuzkoako Diputazioa lurraldeko adinekoen egoitzetako lan-hitzarmenaren negoziaketan inplikatzeari buruzko ebazpena eztabaidatu zen. EAJ-PSE eta PPren bozkekin, ordea, Diputazioaren

inplikazioa lausotuko duen ebazpena gailendu zen.

### Greba dinamikak ez du etenik

Bien bitartean, sektoreko greba eta mobilizazioez gain, zortzi egoitzatan greba mugagabeak aurrera dirau eta 200 egun betetze bidean daude: Donostiako Txara II (Biharko Gipuzkoa), Villa Sacramento (Domusvi-Mitie), La Paz (GSR-Coop. Mondragon), Errenteriako Sgdo. Corazon (Eulen), Zumarragako Argixao (Gerozerlan-Matia) eta Zumaiako San Juan (Clece), Ordiziko San Jose (Zaintzen-Clece) eta Sanmarkosene (Errenteria).

ELAK lanean jarraituko du akordio bat lortzeko, baina baldintza batekin: sektoreko egiturazko arazoei heldu behar zaie. Horrek esan nahi du partzialtasunari amaiera ematea, soldata arrakala murriztea eta zaintza sistema duinago bat eraikitzea.

Azken batean, gatazkak agerian utzi du eztabaida ez dela soilik sektoriala. Zaintza lanen balioa, emakumeek nagusiki betetzen duten lan baten aitortza eta zerbitzu publikoen eredia daude jokoan. Eta horren aurrean, langileek argi utzi dute: prekaritatea ez da onargarria, eta borroka da aldaketa bideratzeko tresnarik eraginkorrena. ■

# La clase trabajadora mundial, muro de contención del fascismo

ELA ha participado en dos encuentros de sindicalismo global, en Argentina y Brasil, para reflexionar sobre la necesidad de articular respuestas colectivas desde el ámbito sindical, social y político para defender los derechos sociales, laborales y colectivos.



## > Landeia

El sindicalismo internacional en una pieza fundamental para hacer frente al avance del fascismo y el imperialismo. Esa es la principal conclusión que extrae ELA tras participar en distintos encuentros de sindicalismo internacional, en Argentina y en Brasil, respectivamente.

Así, una delegación de ELA participó en una jornada internacional de debate y reflexión celebrada en La Plata, Argentina, el 22 de marzo. Bajo el lema 'A 50 años del golpe de Estado, resistimos a la dictadura de ayer y al fascismo de hoy', los principales sindicatos del país suramericano, -la CTA Autónoma, la CTA de los Trabajadores y la CGT-,

organizaron un encuentro en el que también estuvo presente ELA, de la mano de Luis Fernández, responsable de Sindicalización y Militancia en la Ejecutiva. Del mismo modo, el sindicato estuvo presente en la I Conferencia Antifascista y por la Soberanía de los Pueblos, celebrada en Porto Alegre, Brasil, del 26 al 29 de marzo.

## Distintos países, retos paralelos

A pesar de tratarse de dos países con distinta idiosincrasia, comparten retos globales como el auge del fascismo. Así, en el encuentro de Argentina proclamaron que la unidad sindical es la clave del éxito para derrotar al fascismo y hacer frente a las dictaduras. Al igual que

en Argentina, en Brasil el debate también se centró en el crecimiento global de la extrema derecha y de las fuerzas neofascistas, y en la necesidad de articular respuestas colectivas desde el ámbito sindical, social y político, reforzando la cooperación internacionalista y la defensa de los derechos sociales, laborales y colectivos. Una reflexión que ELA comparte y por la que decidió adherirse a la Declaración de Porto Alegre, un llamamiento internacional a reforzar la unidad frente al avance del fascismo y el imperialismo, así como a defender la soberanía de los pueblos desde una perspectiva democrática y social.

## La clase trabajadora como muro de contención

Y en ese reto por aunar fuerzas frente al fascismo tiene mucho que decir la clase trabajadora.

Tal y como afirmó en el encuentro de Buenos Aires Luc Triangle, secretario general de la Confederación Sindical Internacional (CSI), en su intervención, "De 1976 a 1983 fueron los años más oscuros de la historia argentina, pero los trabajadores fueron el motor de la lucha para terminar con la dictadura militar. Lo que vemos hoy en el mundo tal vez no sea un golpe militar, pero si se trata de un golpe de multimillonarios, de la extrema derecha que atacan a la democracia, los derechos humanos,



## DECLARACIÓN PORTO ALEGRE

### Unidad contra el fascismo y por la soberanía de los pueblos

Asimismo, la participación en esta conferencia ha servido a ELA para tejer alianzas con otros sindicatos y movimientos políticos, tanto a nivel estatal como internacional, fortaleciendo redes de colaboración imprescindibles para hacer frente al avance global de la extrema derecha.

ELA reafirma así su compromiso con la lucha antifascista y con la construcción de alternativas que garanticen una sociedad más justa, democrática y basada en los derechos de los pueblos.

y la clase trabajadora. Los Milei, los Bolsonaro, los Trumps tienen la misma agenda que los militares en la década de 1970, y como las dictaduras, a lo que primero apuntan es los sindicatos”.

En la misma línea, en el congreso de Brasil, ELA participó activamente en la conferencia principal ‘El enfrentamiento de los trabajadores al neoliberalismo y al fascismo’, junto a organizaciones sindicales y políticas, donde subrayaron el papel clave del sindicalismo en la contención de las dinámicas autoritarias.

Además, participó en otras actividades impulsadas por el Comité para la abolición de las deudas ilegítimas (CADTM), en las que se analizó ‘La internacional neofascista’, y donde también hubo espacio, junto a organizaciones de naciones sin Estado, para reflexionar sobre “la contribución de los Derechos Colectivos de los Pueblos a la lucha global contra el fascismo”. En este espacio destacaron la importancia del derecho de autodeterminación y la soberanía como herramientas fundamentales para mejorar las

## Herrialde ezberdinak diren arren, erronka globalak partekatzen dituzte, faxismoaren hauspoa kasu

condiciones materiales de la clase trabajadora.

Una idea que también se escuchó en Argentina, donde, en el eje del debate hubo dos ideas principales: en primer lugar, la lucha sindical y el internacionalismo son fundamentales para contener el avance del fascismo a nivel mundial; y dos, es urgente neutralizar el negacionismo que exhibe la extrema derecha.

Los participantes en La Plata subrayaron la importancia de la lucha sindical en las calles, al tiempo que alertaron de la importancia de organizarse desde abajo para hacer frente a la privatización y la destrucción de los derechos conquistados en las luchas sociales.

El evento de La Plata contó con la presencia de 73 referentes sindicales de Brasil, Chile, Uruguay, Paraguay, Bolivia, Perú, Costa Rica, Honduras,

República Dominicana, Italia, Francia, Alemania, Bélgica, España, Galicia, País Vasco, Portugal y Australia. Se constituye así como la delegación más importante en la historia del movimiento sindical argentino desde la recuperación de la democracia.

Además de Luc Triangle, secretario general de la Confederación Sindical Internacional (CSI), destacó la presencia de su homólogo de la Confederación Sindical de las Américas (CSA), Rafael Freire y los líderes de las CTA, por la Autónoma, Hugo Godoy, y por la de Los Trabajadores, Hugo Yasky. También intervinieron el Premio Nobel de la Paz, Adolfo Pérez Esquivel, el referente de la Coordinadora de Centrales Sindicales del Cono Sur, Quintino Severo.

Las jornadas culminaron el 24 de marzo, en Buenos Aires y en todo el país, con la marcha por Memoria, Verdad y Justicia. ■



# Zazpi gogoeta Euskal Errepublikarantz

Inoiz baino beharrezkoagoa da Euskal Herriaren subiranotasuna aldarrikatzea. Ongizatearen gizartea gainbehera betean dagoelako, langile klasea gero eta prekarioago, eskuin muturra inoiz baino oldarkorragoa, eta estatuen zentralizazioak ere aurrera jarraitzen duelako

## > Miren Rubio

Bada, ELA sinetsita dago egoera horri erantzuteko beharrezkoa dela antolatzea eta burujabetzan pausoak ematea; horretarako mamitu du Euskal Errepublikarantz. Estrategia

subiranista hauspotzeko gakoak liburua. Txalaparta argitaletxeak eta Manu Robles-Arangiz Fundazioak argitaratu dute, eta zazpi egileren hausnarketak jasotzen ditu, oso ikuspegi eta esparru ezberdinetatik burujabetzaz jarduteko:

feminismotik, ekonomiatik edota lan arloaren eta lurraldetasunaren ikuspegitik, besteak beste.

Izan ere, Unai Oñederra ELAko estrategia subiranistako arduradunak eta Manu Robles-Arangiz Fundazioko lehendakariak argitalpenaren aurkezpenean adierazi zuenez, Euskal Herria “impasse” egoera batean dago, nazioarteko panorama oso bestelakoa izanagatik ere. “Batzuk, gauzak aldatu nahi ez dituztenak, pozik daude Euskal Herri bare eta egonkor honetan. Oasi bat da, haien hitzetan, ezegonkortasunaren ekaitzaren erdian. Akordio eta adostasun zabalen herria gara, polarizazioa gailentzen den mundu batean. Eta, egoera horretan, eskuineko diskurtsoek gora eta independentismoak behera egiten dute”. Kezka hori izan da liburuaren abiapuntua: “gauzak ez badira mugitzen, atzerantz egiteko arrisku handia dagoelako”.

Horregatik erabaki dute sindikatuak eta fundazioak liburu hau egitea, euskal errepublikarantz joateko “norabideak” papereratzeko, Oñederraren hitzetan. “Burujabetzan aurrera egin nahi badugu, hobekuntza sozialak eta burujabetzan urratsak dakartzaten aldarrikapen zehatzak egin behar ditugu, eta horiek lortzeko ezinbestekoa izango da gizarte zibila aktibatzea, antolatzea eta konfrontazio demokratikoa bultzatzea”.

Alor sozialeko, akademiako eta sindikalgintzako egileak dira gonbidatutakoak, eta “ziklo politiko berri bat aktibatzeke gakoak mahaigaineratu dituzte”, Ane Eslava Serrano Txalapartako editorearen esanetan. Hain zuzen ere, honakoak dira parte-hartzaileak: Unai Apaolaza Amenabar (filosofoa), Uzuri Aboitiz Hidalgo (EHUko ikerlaria eta antropologoa), Andrea de Vicente Arias (EHUko irakaslea, Lan Harremanen eta Gizarte Laguntzaren Fakultatean), Iñaki Lasagabaster Herrarte (EHUko Administrazio Zuzenbideko katedraduna), Roser Espelt Alba (ELAren Azterketa



Bulegoko kidea), Ainize Butron Arana (Alda elkartearen zuzendaritzako kidea) eta Amaia Alvarez Berastegi (NUPeKo irakaslea).

Zehazki, Unai Apaolazak Hego Euskal Herriko abertzaletasunaren mendi erdiko ibilbidea aztertu du, eta bi estrategia abertzale bereizten ditu, biek ere porrot egin dutenak; horregatik ondorioztatu du estrategia berri baten falta dagoela. Bestelako ikuspegia du Butronek: estrategia jakin baten emaitza dira Ipar Euskal Herriko abertzaleek lortutako aurrerapausoak, Batera plataformaren eta herri ekimenaren bitartez. Amaia Alvarezek, bestalde, uste du gorpuztu gabe dagoela 2015ean UPN foru gobernutik kanporatzeak ekarritako "aldaketa", eta beharra ikusten du gizarte auzietan sakontzeko. EAEko errealitateari erreparatuta, Iñaki Lasagabaster kezka mintzo da autogobernuaren higaduraz eta zentralizazioaz; are, 2018an EAEn sortutako autogobernuaren batzordeari egotzen dio burujabetzaren gaia bere horretan izozteko nahia. Andrea de Vicentek, berriz, aztertu du lan harremanen eta babes sozialaren esparrua,

## El libro recoge las aportaciones de siete personas, que reflexionan sobre la soberanía desde espacios diferentes: feminismo, economía, mundo del trabajo, territorialidad, etcétera

eta ondorioztatu du Madrilek ezartzen dituen legeak ez direla aski Hegoaldeko herritar zaugarrienak babesteko; horretarako, ezinbestean hemen kudeatu eta arautu behar dira politika soziolaboralak.

### Norabide aldatzeko beharra

Uzuri Aboitzek, bestalde, aletu du burujabetza feministaren esanahia eta ekarpena: burujabetzak geruza asko dituela dio, eta horiei erreparatu ezean ez dagoela benetako burujabetzarik; premiazkoa da erabakitze boterea izatea bizitza duinari eusteko esparru guztietan, zaintza barne. Ildo beretik jo du Roser Espeltek burujabetza ekonomikoaz mintzo denean: eskuduntzak paperean geratuko dira, baldin eta azken hitza kapital handien eta indar ekonomikoen esku geratzen bada.

Hausnarketa horren garrantzia azpimarratu du Mitxel Lakuntza ELAko idazkari nagusiak, burujabetza faltak eta kapital handiekiko menpekotasunak okertu dituztelako euskal langileen bizi baldintzak. Are gehiago EAEko estatus berriko elkarrizketak gizarteari bizkar emanda negoziatzen ari direnean, dioenez, eta Nafarroako Parlamentuko batzordea eztabaida instituzionalera mugatzen ari denean. Beharrezkoa da "norabidea aldatzea eta alternatiba sozial eta politiko sendoak" eraikitzea eta "gizartea aktibatzea", alderdien zain egon gabe. Bestela, balizko adostasunek egungo zapalkuntzak "betikotuko" dituztela ziur da Lakuntza. Liburuak bide horretan pausoak emateko gakoak eskaintzen dituela ziur da idazkari nagusia. ■

## CONSULTORIO JURÍDICO

### MERCADONA:

# La prima por objetivos como mecanismo de represalia

**La justicia ha respaldado a ELA y ha confirmado en más de diez sentencias que Mercadona retira la prima como forma de castigo en casos de bajas, conciliación o actividad sindical**

#### > Ane Bilbao

Las sentencias judiciales concluyen que Mercadona ha utilizado la prima por objetivos y permanencia de forma irregular, dejando de abonarla en determinadas situaciones como medida de castigo hacia trabajadores y trabajadoras, lo que supone una vulneración de derechos fundamentales. Lejos de constituir un complemento neutro vinculado a los objetivos, los tribunales han constatado que, en determinados casos, su supresión responde a una lógica de represalia frente al ejercicio de derechos laborales, lo que determina la vulneración de derechos fundamentales, con su consiguiente declaración de nulidad y reconocimiento del daño moral causado.

#### **La prima como instrumento de control**

La prima regulada en el artículo 31 del convenio de empresa de Mercadona se configura formalmente como un complemento vinculado a parámetros como "compromiso", "esfuerzo", "equidad", "servicio", "disciplina" o "actitud". Sin embargo, la litigiosidad generada ha permitido evidenciar que estos criterios, por su alto grado de indeterminación, habilitan un amplio margen de discrecionalidad empresarial.

Las sentencias ganadas ponen de relieve que dicha discrecionalidad ejercida por las personas coordinadoras no es neutra. Por el contrario, se inserta en un sistema organizativo en el que cualquier actuación de la persona trabajadora orientada a la defensa de sus derechos —solicitudes de conciliación, procesos de incapacidad temporal, reclamaciones previas o actividad sindical— es percibida como una desviación del denominado "modelo Mercadona". En este contexto, la evaluación negativa que conlleva la pérdida de la prima opera como mecanismo disciplinario encubierto.

#### **La importancia de la prueba: Indispensable acreditar la represalia**

Desde una perspectiva estrictamente jurídica, uno de los elementos más relevantes de estas resoluciones es la cuestión probatoria. No basta con la mera constatación de que la prima no ha sido abonada; resulta imprescindible acreditar la existencia de un nexo causal entre el ejercicio de un derecho y la decisión empresarial.

En este punto, ha resultado determinante la aportación de pruebas directas, en particular grabaciones de conversaciones mantenidas con los



y las coordinadoras. Dichas grabaciones han permitido constatar la existencia de mensajes explícitos o implícitos de carácter amenazante —frecuentemente formulados bajo expresiones con apariencia amable como “necesito volver a recuperar la confianza en tí”, “somos un equipo”, “estoy aquí para ayudarte”— que vinculan la evaluación negativa al ejercicio de derechos.

Esta evidencia ha sido clave para activar la doctrina sobre la inversión de la carga de la prueba en materia de derechos fundamentales, obligando a la empresa a justificar la razonabilidad y proporcionalidad de su decisión, lo que no ha logrado acreditar.

### **Vulneración de derechos fundamentales: Nulidad de la medida y reparación íntegra**

Sobre la base de los hechos probados, los tribunales han calificado la conducta empresarial como vulneradora de diversos derechos fundamentales, entre ellos: El derecho a la tutela judicial efectiva (art. 24 CE) en supuestos de represalia por reclamaciones previas; el derecho a la igualdad y no discriminación (art. 14 CE), en casos de embarazo, enfermedad o ejercicio de derechos de conciliación; la libertad sindical (art. 28 CE), cuando la medida afecta a la actividad representativa.

La consecuencia jurídica de dicha calificación no es meramente indemnizatoria, sino la nulidad radical de la decisión empresarial, con todos los efectos inherentes a la misma. En este sentido, un elemento especialmente relevante es el reconocimiento de la necesidad de la reparación íntegra de una doble consecuencia

económica: el abono de la prima indebidamente retirada más la condena al pago de una indemnización adicional por daño moral.

Los tribunales parten de la premisa de que la vulneración de un derecho fundamental genera, por sí misma, un perjuicio moral que debe ser reparado. En este sentido, las cuantías reconocidas no son simbólicas, sino que responden a una función resarcitoria y también disuasoria. Es estos casos, ELA ha conseguido condenas indemnizatorias de 7.501 €, en la mayoría de los supuestos.

### **El “modelo Mercadona” es discriminatorio**

Este conjunto de sentencias no describe supuestos aislados, sino que identifica el modelo empresarial de Mercadona que ELA lleva años denunciando. Es más, dichas actuaciones se repiten en todos los territorios en los que Mercadona existe tal y como han reconocido sentencias de otros territorios, respondiendo así a pautas organizativas estables y homogéneas. El denominado “modelo Mercadona” se proyecta como un sistema de gestión empresarial discriminatorio y contrario a los derechos fundamentales de las personas trabajadoras.

Ante esta situación, la conclusión no puede ser otra: Frente a prácticas empresariales organizadas, la respuesta también tiene que ser colectiva y organizada. Por eso, el llamamiento a la plantilla de Mercadona es claro: Organizarse es la herramienta fundamental para hacer frente a Mercadona.” ■



# Iparraldeko hauteskundeak... baina nola?

Herrietako bozak (udal hauteskundeak) joan den martxoan iragan ziren Frantzian eta Iparraldean. Euskal Herriko lurralde batzuen hauteskundeak badira ere, Hegoaldean oso ezezaguna da horren funtzionamendua. Hona hemen azalpena.

## > Xebax Christy

### Herri plataformak

Gehien gehienetan, zerrendak ez dira alderdi baten izenean aurkezten ("etiketarik gabe" direla erraten da). Zerrenda bakoitzak bere kolore politikoa du, hala ere (ezkerra, zentro-eskuina, ekologista, ...) eta alderdi

baten edo batzuen sustengua ukaiten ahal du. Hau ez da Iparraldeko berezitasun bat, Estatu frantses osoan horrela da, hiri handienetan salbu.

Baionan, adibidez, bost zerrendarik lau etiketarik gabe ziren, nahiz eta zerrendaburuak alderdi bateko kide izan (Etchegaray, Renaissance; Jean-

Claude Iriart, EHBai; Etcheto, Alderdi Sozialista; Lesellier, Rassemblement National) eta Iriart abertzaleak eramaten zuen Baiona Mugimenduan zerrendak ezkerreko hamar bat alderdi eta mugimenduen sustengua izan (horien artean, EHBai). Bosgarren zerrenda La France Insoumise alderdiarena zen.

Bestalde, zerrendaburuaren figurak garrantzi handia du eta zerrendarekin identifikatzen da ("Etchegarayren zerrenda" edo "Etchetoren zerrenda" aipatzen dira), zerrenda batzuk haien izaera kolektiboa aitzinera ematen saiatu badira ere.

### Herrietako kontseiluak

Bozak 6 urtean behin iragaten dira (azkenak 2020an izan ziren). Orain hasten den kargualdia salbuespen bat izan daiteke eta 7 urte irauten ahal luke, 2032an presidente bozak izanen direlako (5 urtean behin dira eta 2027an izanen dira hurrengoak, 2032an ondokoak). Bi hauteskunde horiek urte berdinean ez egiteko, herrietako bozak 2033ra atzeratuko dira seguraz ere.

Herrietako kontseiluek hautetsi gehiago dituzte Iparraldean Hegoaldean baino. Adibidez, Baionak (54.306 biztanle) 45 hautetsi ditu, Hazparnek (7.626 biztanle) 29 hautetsi, Donibane Garazik (1.479 biztanle) eta Atharratzek (589 biztanle) 15 hautetsi.

Iparraldeko 158 herrietan, 2.350 kontseilari hautatu behar ziren eta 222 zerrenda aurkeztu dira, 4.024 hautagaiek osaturik.

Bozketa bi itzulitan da (aurten, martxoaren 15an zen lehen itzulia eta 22an bigarrena). Lehen itzulian, gehiengo osoa lortu behar da irabazteko. Nehork ez badu lortzen, bigarren itzuli bat egiten da aste bat berantago; lehen itzulian bozen %10 baino gehiago lortu duten zerrendak aurkezten ahal dira eta bi zerrenda edo gehiago batzen ahal dira bi itzulien artean (bi egun dituzte horren adosteko, zerrendak astearte arratsalde bukaerako aurkeztu behar baitira).

113 herrietan, zerrenda bakarria aurkezten zen eta ondorioz emaitza aitzinetik ezagutzen zen. Beste 30 herrietan, bi zerrenda ziren, eta itzuli bakar bat izanen zela segur zen.

Hiru zerrenda eta gehiago zuten herri batzuetan ere, lehen itzulia erabakigarria izan da eta 11 herrietan soilik egin da bigarren itzuli bat.

Eserlekuen banatzeko orduan, erdia irabazi duen zerrendari ematen zaio ("gehiengoa duenari prima" deitzen da) eta beste erdia proportzionalki banatzen da emaitzen arabera.

Hazparnen, adibidez, bi zerrenda ziren: lehenak bozen %71,48 erdietsi du eta 25 hautetsi ditu; bigarrenak, bozen %28,52rekin, 4 hautetsi ditu.

Baionan, nehork ez du gehiengo osoa lortu lehen itzulian, ondorioz bigarren itzulia egin da. LFIren zerrendak ezin izan du mantendu, %3,81 egin zuelako. Beste lauek ahal zuten eta ezkerreko bi zerrendak batu dira, ondorioz hiru zerrenda aurkeztu dira bigarren itzulian. Etchegarayen zerrendak bozen %50,70 erdietsi du eta 35 hautetsi ditu, Iriarten zerrendak (%41,01) 9 hautetsi, eta eskuin muturreko zerrendak (%8,29) hautetsi bat.

Herriko kontseilu berria lehen aldiz biltzen delarik, auzapeza eta auzapezordeak bozkatzeko dituzte. Normalean, auzapeza gehiengo osoa lortu duen zerrendaren burua da, baina ez da automatikoa.

### Hirigune elkargoa

Euskal Hirigune Elkargoak Iparraldeko 158 herri biltzen ditu eta 232 hautetsik osatzen dute hiriguneko kontseilua. Herri bakoitzak hautetsi kopuru bat du, haren biztanle kopuruaren arabera (Baionak 22, Hazparnek 3, Donibane Garazik eta Atharratzek 1, adibidez).

232 hautetsi horiek herrietako hautetsiak dira. Herrietako hauteskundeetan aurkeztean, zerrenda bakoitzak adierazten du zoin diren hirigunerat joanen diren hautagaiak, eta eserlekuak emaitzen arabera banatzen dira.



## Euskal Hirigune Elkargoa agrupa a 158 municipios de Iparralde y 232 cargos electos conforman el consejo. Cada localidad cuenta con un número de electos en función de su población (Baiona 22, Hazparne 3, Donibane Garazi y Atharratze 1, por ejemplo).

Hirigune elkargoko kontseilu berrituaren lehen batzarrean, hirigune elkargoko presidentea hautatzen da. "Hirugarren itzulia" deitzen zaio bozketa horri. Hiru itzuli izaten ahal ditu bozketak: lehen bi itzulietan, gehiengo absolutua lortu behar da irabazteko, hirugarrenean aldiz gehiengoa aski da.

Aurten, apirilaren 11n iragan zen eta lau hautagai ziren. Ez ziren alderdi

baten hautagaiak, haien izenean aurkezten ziren (alderdi logikarik ez da hiriguneko kontseiluan, azken urteetan bi talde politiko sortu baziren ere, horietarik bat EHBairi lotua). Lehen itzuliaren ondotik, Lesellier eskuin muturrekoa (boz bakar bat lortu zuena) eta Peio Etxeleku atera ziren. Ondorioz, segur zen bigarren itzulian erabakiko zela, Jean-René Etchegaray eta Alain Iriarten artean, eta azken honek irabazi zuen. ■

EUBA 1976 - EIBAR 2026:

# 50 URTE: GU ERALDATU, MUNDUA ALDATZEKO

**D**atorren uztailaren 3an, Eibarren, ELAk ospatuko du bere azken 50 urteetako ibilbidea. 1976an, frankismotik ateratzeko atakan, sindikatuak bere 3.kongresua egin zuen, bi saio ezberdinetan: abuztuan, Eubako San Gabriel eskola zaharrean (Zornotza), eta urrian Eibarko Astelena frontoian. Orduan, ELAk onartu zituen bere printzipioak, eta horrekin batera berreraiki zuen II Errepublikatik zetorren eraitsitako zubia.

Adierazpen hura bere garaian sindikatuaren sorrera-aktaren eta lehen estatutuen (1911) berrikuspina izan zen, gaur egun oraindik ere ELA definitzen duten funtsezko ezaugarriak ezarriz: euskal sindikatu abertzalea, sozialista, independentea eta bere afiliazioaren bidez finantzatua. Gogoratu behar da iaz, 16. kongresuan, ELAk euren printzipioak eguneratu zituen, 50.urteurrena aurreratuz.

Aurten, aldiz, ELAk ekitaldi berezia antolatuko du Eibarren uztailaren 3an, lelo esanguratsupean: 'Oinarri sendoak etorkizunerako' ('50 años de transformación y lucha'). Horretarako, 1976ko irudi historikoa berreskuratu da (orduko kongresuen iruditeria Jose Luis Zumetak eta Joxean Artzek diseinatu zuten), baina eguneratu da gaur egungo ikurrak eta koloreak baliatuz.

50 urte hauetan, ELAk bere bilakaera egin du, beti ere mundua aldatzeko.

Urte aunitzetarako!

2026 UZTAILAK 3  
EIBAR

## OINARRI SENDOAK ETORKIZUNERAKO

50 AÑOS DE TRANSFORMACIÓN Y LUCHA



Esta revista se elabora con papel y procedimientos sostenibles

Franqueo concertado

NO 08/129